

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

606. zkia.

XV. urtea

2007ko martxoaren 16a



Xabier Arakistain, Montehermoso Kulturuneko zuzendaria

**«Arte Garaikidea mundua beste
era batera ikusteko modua da»**

Emetik

BERTSO KABARETA



Euskara
Saila



gizarte ekintza

Mikel
Gorkina
Guzukano!

Ohane
Pena

Ortza
Erbeta

Iratse
Ibarra

Lankur
TEL. 947 200 730
www.lankur.com

korrika  aek
KARRANTZA-IRUÑEA 2007
MARTXBAREN 22AN APirilAREN 1era

Martxoak 23, ostirala
22:15ean Kultur Etxeko Sotoan

**SARRERA
DOAN**

15 
korrika

KARRANTZA-IRUÑEA 2007 MARTXBAREN 22AN APirilAREN 1era

aek heldu

ELKARLANARI EUSKARARI HERRIARI
HITZARI LEKUKOARI

badator!





ALAITZ VIVES

Arrezkero gizajuak ez zaban gehixo osasunik izan. Sarritxan itxen zaban bere kaseta negar. Guk bagenkixan baina, hari zela lagundu! Oin gauzak diferentiak dia, ta igual egongo zan hari lagunduko zionik, baina... guk ez genduan jakin zela lagundu. Nerbixuetatik sufritzen zauan. Neurekin euki nabari etxian, hil zan arte. Gaztiak ginan ta, gaztiak ez, umiak artian! Ontxe dator bai urteurrena, urteurren tristia oso guretzat!

Apirilaren 24an 70 urte beteko dira nazionalak Elgetara sartu zirenetik. Egun hartan, orain 70 urte, gure hizlariaren anaiak osasuna kenduko zionaren testigu izan zen. Aita eta sei gudari tiroz hil zituzten etxeko atarian. Izeba eta bera, umea zela artean, bizirik utzi zituzten. Halaxe kontatu zuen berak, 11 urteko mutil koskorrak, inoiz beste ezer gehitu gabe, bizipenak sortu zion sufrimendua betirako beretzat gordez. Halaxe kontatu digu orain bere anaiak. Ez dira heroiak, ez dira gudariak, agian ez dute diru apurra lortuko duten esperantzan burokraziaren paper-bide korapilotsuetan jarduteko ez gogo ezta astirik ere. Belarriak nahi dituzte. Geureak. Ez dira heroiak, ez dira gudariak, bortxaz eraman nahi izan zuten, aita tiroz hil zuten, bortxaz eraman nahi izan zuten bera, ama arma kolpez hil zuten, bortxaz eraman nahi zutelako bera, neska koskorra baino ez zelarik, umezurtz gelditu zen. Bortxaz hartu nahi izan zuten. Neska koskorra baino ez zelarik. Horrelakoak ez ziren Balkanetan (bakarrik) gertatu. Zoritxarrez.

ZOZOAK BELEARI...



ALAIN MANTEROLA

**«70 urte beteko
dira nazionalak
Elgetara sartu
zirenetik»**

ALAITZ

**«Norberak atera
ditzala kontuak
non bizi garen
badaki behintzat»**

ALAIN

Ez dakit gudari txiki bat, gerra txikietako gudari bat ez ote duten bamean izango. Iraultza biolentoa zen burgesia eta eliza destronatu eta herri proletalgoaren agintea ezartzeko modu bakarra anarkistentzat. Baina Bakuninek, irakurri ez dutenen eta berari buruz diharduten kritiken ahanzturatik zera esaten du pasarte batean, intentsitate txikiko gerra bat denbora luze iraunarazteak gizartearen gogamen eta tentsio ideologikoaren usteltzea galarazten duela, azken buruan, usteltze horren ondorio litzatekeen gerra handi eta gizalegerik gabeko bati bidea itxiz.

Intentsitate txikiko gerra batek jendeari pentsarazi egiten diola, eguneroko ekinbide txikian konprometiarazten duela, alegia. Norberak atera ditzala kontuak non bizi garen baldin badaki behintzat.

Eta emakumeek ere bai. Martxoaren 8a pasa berri da eta gerra zibil baten eszena krudeletik kanpo ere bortxaketek eta emakumearen zapalkuntzak hor darrai mundu zabalean. Hirietan ikusi ditut kartelak, manifik eta gerra txikiak, ezagutu ditut egunez esku orietan eta gauetan ometan idazten duten emakume gerlariak. Baina gure herri txikietan zer? Galdera hor uzten dut: ez al da ba guztiz matxista, ni neu sartuta, gure Mendaro? Neure emetasunetik ekarpena eginez Martxoak 8ari, ezagutzen dudan emakume langile eta guapienaren omenez, neure amaren omenez, amaren apelidurekin sinatuko dut gaur hitz pilo hau. Aupa amatxo langileak.



GIZAKIEI HILTZEN ERAKUTSIKO DIENAK,
BIZITZEN IRAKUTSIKO DIE



Michele de Montaigne

Bigarrena eta azkena

Paradoxa badirudi ere, zaila da gure herrian herrigintzan soilik aritzea. Baina horixe da duela 12 urte hartu genuen konpromezua eta halaxe jarraituko dugu "handi nahirik edo alderdi politikoen menpekotasunik gabe, guztiz independente Mendaroen zentratutako ikuspuntu batez...". Handik eta hemendik jasotako tirakadak ugariak izan diren arren, gure orduko konpromezua bere horretan mantentzea lortu dugu eta horretan dihardugu.

Ez dugu auzi antzurik haizatu nahi. Ez dugu uste azken asteetako eskutitz gurutatuak errealitatearen ispilu direnik. Argi dago Mendaroko Talde Independentea eta Mendaroko Ezker Abertzalea ez datozela bat herrigintza ulertu eta horretan jarduterako orduan, eta BARRENe-ko ehundaka ale ez lirakeke nahikoa izango desadostasun horiek leuntzeko. Baina Mendaro helburu hartzen dugunetan, bi taldeon arteko desadostasunak ez dira hainbestearinokoak eta hala ere, aldizkari honen orrialdeetan baino aurrez-aurreko hizketaldietan konpontzen baditugu, guk behintzat, nahiago.

M.T.I.

Hautzaindegixa dala eta

Berez gauza ona bada ere, lotsia baino ez dot sentitzen hautzaindegixaren inauguraziua dala eta, nahiz eta jakin herri hontan gauza asko nola egiten diran. Baina "erdi egixa-erdi gezurrak" ematen diti amorrua, gauzak hain modu arinian esatiak, promesak hain errez egitiak... holako epelkerixaz jokatzia, azken batian.

2005eko uztailian (2005ian bai!!) bileria izan gendun gurasuok udal ordezkari batekin hautzaindegixan obrak egin biharra zeguala eta. Bertan hainbat promesa egin ziguen: abuztuan (2005ian, jakina) obrak adjudikatzeak eta hastekuak omen ziran, abenduaren erdialderako bukatuta egongo zirala eta 2006ko urtarrilari sartzeko moduan. Iro-niazko irriparrak ikusten zan guraso askoren ezpainetan.

Hala ere, 2006 urteko ekainera arte ez ziran adjudikatu obrak, eta joan zan ostiralian, 2007ko martxuaren 9xan, izan zan inauguraziua!!

Baten batek duda izpiren bat bazakan, horrek guztixak garbi erakusten dau herritarren premiak bigarren mailak direla herriko agintarixentzat. Bost axola jakue 4 hilabete, urtebete, urte eta erdi edo bi urteko atzerapena, euren helbu-

ruak beteta ikusiz gero. Hori bai, orain inauguraziuak barra-barra: Apraizko depuradorea, San Rokeko bolatokixa, hautzaindegixa bera... Jakina ba, maiztarian udal hauteskundiak izango dira-ta.

Lasai asko esango dabe arazuak eduki dittuela: eguraldixa, hezetasuna, grebak, ustegabekuak... auskalo. Ederki argumentutako arrazoiak emango dittue, "políticamente correcto" izango dira. Baina konturatu ote dira umiak 15 hila-betian (horixe baita atzerapena) asko hazten dirala? Beste ekintza batzuetarako edukitzen dabe, ba, presia! (botazio egunaren bezperan kaliak asfaltatzeko, esate baterako). Eta jentia ez dau ezer ere esaten! Normalizat jotzen dira holako gauzak!

Dana ontzat eman bihar ete dogu, ba? Dana balekua al da? Ni ezetzian nago.

J.K.S.

X. Pilota Eguna

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larubatean, Martxoak 10an, ospatutako X. Pilota Eguna antolatzen lagundu duen eta babeslea izan den Euskadiko Kutxari, Astigarraga Kirolak dendari bai eta Elgoibarko Pilota eskolako arduradunei ere.

Bestalde eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

PILOTA EGUNA BATZORDEA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
3. L. T. O. P. E. Z. P. I. T. Z. A.

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.620 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



TXALOAK

• **Txalo bero bat Udal Musika Bandari:** "Ikaragarria, lilugarria izan zen domekako kontzertua. Eguraldi bikaina egiten zuen egunpasa joateko, baina Herriko Antzokia jendez gainezka zegoen. Eltziegoko dultzaineroen emanaldia oso polita izan zen, berezia, desberdina. Eta Udal Musika Bandaren jarduna primerakoa. Denak aritu ziren bikain. Herriarrentzako sekulako gozamina izan zen. Jarraitu horrela, gaztiak. Oso gustura joaten gara bandaren kontzertuetara".

• **Eskerrak Astigarraga Kirolak dendari:** "Ikastolako X. Pilota Egunean partehartzaille guztiei kamisetak oparitu zizkieten eta gurasoen partez eskerrak eman nahi dizkiegu".

• **Txalo bat Haizea, Biluzik eta Gazte Asanbladakoentzat:** "Martxoak 8, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela-eta, ekitaldi desberdinak antolatuta dituzte herriko hiru talde hauek, eta eskerrak eman behar zaie. Badakigu urteko egun guztietan borrokatu behar dela emakumearen eskubideen alde, baina martxoaren 8an kalera ateratzea oso garrantzitsua da. Egitaraua ez da oso zabala izan, baina badakigu ez dela erraza ekitaldiak antolatzea. Txalo bat merezi duzue egindako lanagatik. Pena bat da ekitaldi hauetan jende gutxi ibili dela. Ea datorren urtean hermitar gehiago ikusten dugun ekitaldi hauetan".



KEXAK

• **Argia joan zen egunean Madalako semaforoak ere itzali ziren:** "Sekulako desastrea izan zen. Joan zen astean, ekaitzaren ondorioz, argia joan zen herri osoan eta Madalako errotondako semaforoak ere itzali egin ziren. Gaueko 21:00ak ziren eta dakigun moduan, ordu horretan ez da kotxe askorik ibiltzen. Hala ere, sekulako desastrea izan zen, ez genekien zer egin, nor atera lehenengo, nor itxaron behar zuen... Honelako kasuetarako sistemaren bat asmatu beharko litzateke, ezin da errotonda bat semafororik gabe utzi".



• **Zapatu arratsaldetan ezin da San Frantzisko kalean ibili:** "20:00ak aldean atera ginen joan zen zapatuan Jubilatuen Egoitzatik eta Madalara joatea ia ezinezkoa zen. Kalea jendez gainezka zegoen, denak bultzaka, taberna kanpoan edaten eta batzuk beraien artean borrokan. Egia esan behar badut, beldurra pasatu genuen. Astero-astero gertatzen da gauza bera eta udaltzainak kalean ibili arren, ez da ezer konpontzen. Ez dakit zein den irtenbidea, baina neurriak hartu behar dira, honelako herrixka batean beldurrez ibiltzea ez da normala".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNIOREN Luma

Emakume itsusia

Inoiz ezagutu dudan emakumerik ederrenetakoa zen dudarik gabe, baina berak zatarra zela pentsatzen zuen. Txikitan hainbestetan deitu izan zioten itsusi, benetan itsusia zela pentsatzera iritsi zela. "Batuetan, etxean bakarrik nagoenean, biluztu, logelako argiak itzali eta ispiluari begira egoten naiz denbora luzez" esan zidan, "itzalen pean politagoa da dena, ez duzu us-te?". Irribarre egin nion, eta buruarekin baietz erantzun, arrazoia ematearren, "edozer emango nuke zure logelako ispilua izateagatik" pentsatzen nuela. Baina ez nion esan, eta neurekiko pentsatu nuen argiak benetako edertasuna biluzten duela eta edertasuna larrugorritan, itsusia dela zenbaitentzako, hori izan zitekeela inork emakume hura zatar ikusteko arrazoi bakarra. Bestela ez nuen inondik inora ulertzen. "Edertasuna, beste gauza asko bezala, begiratzen duenaren begietan hasten da" esan eta zuzen begiratu nion begietara, lelotuta.

Unai Villena

BOTAINK!

Gure lehenengo Botaink! atala estreinatu dugu hilabete honetan. www.elgoibarren.net webgunean irekitako eztabai-dagune berria da hain zuzen. Gure helburua, Botaink! atala guztion ideiak eta iritziak jasotzeko gune bilakatzea da.

Lehenengo gaia Martxoak 8 izan da, hau da, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna eta webgunean luza-tutako galdera ondorengoa: Ospatu ala sufritu egiten du-gu martxoaren 8a?

Herritarrek beraien iritziak botatzeko aukera izan dute, eta beste iritzien artean, hauexek aukeratu ditugu BARRE-Nen argitaratzeko:

- Martxoan 8a ez da ospatzen edo sufritzen dan eguna bat, nik uste dot aldarrikapen eguna dala. (feminista bat)
- Berdintasuna, igualitarismoa... hori guztia gura badogu, eguneroko lana da eta ez egun batekoa. Hasi amakin eta bukatu alabakin. Eskolan, kalean, tabernetan, etxean, lanean... Lan handia da. (emakume)
- Hala ere, gaurko eguna aproposa iruditzen jata emakumien eskubideen alde itxeko, gizarte honek poli-ki-poli-ki, orain arte bezela, aurrera eitxeko. (beste gazte bat).

www.elgoibarren.net

Gustatzen al zaizu gure herria?

BOTAINK!

Zure iritzia inporta zaigulako.

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

[AKORDATZEN NAIZ]



MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

«Belauneko lesioa»

Juan nintzan 15 egun pasatzera Bartzelonara eta han entrenamenduan 5 edo 6 partidu jokatu genduzen eta gero atzera Logroñora fitxatzeko. Han nenguala telegramia kapitana. Kanpeonato militarra zaguara Burgosen eta etortzeko hurrengo egunian. Hartu tren, Burgosera jun eta bigarren partiduan jota hankia apurtu zien, ligamentua apurtu zien. Sarrera nahitxa eginda, txarra.

Santanderino bat zan, Navarro zan bere abizena. Adios! Bartzelonako fitxia izurrau zan, bestela han naukan eginda fitxia. Jokatu nitxuan 3 edo 4 amistoso politxak, ondo ibili nintzan. Han nakan Arzan anaixa, Bartzelonakin zauan fitxauta orduan. Ez zaban jokaten titular, baina bigarren ekipuakin jokaten zaban. Harek lagundu zian. Orduan fitxia



seguru nakan Bartzelonakin, baina... 3 hilabete ohian. Ez nintzan operau eta ezer ez. Ligamentu laterala apurtu zien eta esan zian Logroñoko medikuak egoteko ohian. Ekartzen zien janarixa tabernatikan eta hantxe. Gero hasi nintzan jokaten eta primeran. Ez dot euki problemarikan. Ointxe zahartzera problemia etorri jata hori. Orduan ez zagan oin modura ligamentua apurtu eta operaziua egin eta holakorikan. Debara juan egun guztixa hantxe, olatua apurtzen zan lekuan, pasiaran, eguzkixa hartu...

[GURE BERBAK]

Fonologia (1)

Sintaxiaren saila amaittu, eta beste sail bati ekingo diogu aurrerantzian, fonologiari. Bokalak aztertuz hasiko gara. Erakusliak gehitzerakuan hitzen amaierak aldaketa batzuk izaten ditue; ikusi daiguzen, bokalez bokal, zein diran aldaketok:

- **-E amaierako hitzetan, e → i:**

etxea → *etxia*

etxeetan → *etxietan*

etxeok → *etxiok*

- **-O amaierakuetan, o → u:**

besoa → *besua*

besoetan → *besuetan*

besook → *besuok*

- **-I amaierakuetan, -x- epentetikoa tartekatzen da:**

gorria → *gorrixa*

gorrietan → *gorrixetan*

gorriok → *gorrioxok*

- **-A amaierakuetan, -a + a → -ia:**

neska → *neskia*

gona → *gonia*

gauza → *gauzia*

Jesus Mari Makazaga

Pintxoetan aukera zabala

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

XABIER ARAKISTAIN MONTEHERMOSO KULTURUNEKO ZUZENDARIA

«Artista emakumezkoak alboratuak daude arte garaikidearen esparruan»

Xabier Arakistain Gasteizko Montehermoso Kulturunearen zuzendaria izendatu dute, zentro hau zuzentzeko lehiaketa publikoa irabazi ondoren, duela lau hilabete. 1998. urteaz geroztik, komisario independente gisa, estatu nahiz nazioarte mailan, Arte Garaikidearekin loturiko erakusketak egiten ibili ondoren, oraingo honetan, administrazio publikora jauzi egin du. Ilusio handiarekin ekin dio Arakisek erronka berri honi. Madrilen jaio zen arren, 8 urtetik 17ra bitartean, Elgoibarren bizi izan zen.



► Zertan datza komisario independente izatea?

Norberaren proiektuak norberak egin eta epaitzean datza, administrazioarekin inolako loturarik eduki gabe. Montehermoso bezalako administrazio batean egoteak, aldiz, egitasmo bat ingurugiro zehatz batean eta publikoari dagokionez, jarraikotasun bat ematea ahalbidetzen dizu.

► Nolatan eman duzu Montehermosoko zuzendari izateko urratsa?

Zentro hau zuzentzeko aukeraren berri jakin nuenean, nire proiektua abian jartzeko momentu ezinhobea izan zitekeela iruditu zitzaidan. Batez ere, "Manifiesto Arco 2005" adierazpenak plazaratu zituen datuak eta ondorioak ikusi ondoren. Adierazpen hau, Madrilako ARCO ferieren baitan, eta 2003-2005 bitartean burutu ziren Arte eta Feminismoaren inguruko adituen nazioarteko eztabaida mahaietatik eratorritako dokumentua izan zen. Adierazpen honek, agerian utzi zuen emakumezko artistak erabat diskriminatuta daudela espainiar estatuan, Arte Garaikidearen arloari dagokionez. Honen harira, azpimarratu beharra dago bai espainiar estatuan eta Europako estatu gehienetan, artea eta kultura, diru publikoarekin kudeatzen direla. Guzti hau dela eta, bere garaian, manifestuaren bitartez bi gauza eskatu genizkion administrazioari: titularitate publikoa duten museoetan sexuen kuota ezari dezatela, obrak erosterako garaian eta egitarauaren baitan artistak hartzerakoan. Gutxieneko baldintza hauek aldarrikatzea beharrezkoa iruditu zitzaigun emakumeenganako desberdintasun hori gainditzeko.



IBILBIDE PROFESIONALA

Komisario independente izan da duela gutxi arte. Bilbao Arte Fundazioko erakusketen arduraduna izan zen (2001-2003), non, Doble Filo, Royal Blood y Guerrilla Girls bezalako erakusketak burutu zituen, besteak beste. 1999. Urtean, "Trans Sexual Express" erakusketa aurkeztu zuen Bilbao Arten. 2001ean, Rosa Martinezekin batera, aurreko erakusketaren moldaketak, Bartzelona, Budapest eta A Coruñan. Azken urteotan, ARCOko Feminismo, sexualitate eta arteen inguruko eztabaida mahaiak zuzentzen aritu da. 2004an, Leigh Bowery omenez eginiko atzerabegirako erakusketa burutu zuen. Egun, "Kiss Kiss bang Bang, 45 años arte y feminismo" erakustaldia prestatzen dihardu.

«Arte feminista XX. mendean gehien eraldatu den abangoardia dugu»

► Zein dira Montehermosotik finkatu dituzuen helburuak?

Gure lanaren ardatza, artea, kultura eta gizartea hirukoa izango da. Artista berrien belaunaldiak, asko interesatzen zaizkigu, oraindik ere, Arte Garaikidearen praktikak ez baititu erabat zalantzan jartzen XIX. mendeko arte disziplinen banaketa (pintura, eskultura...) eta garai hartako hainbat ideia (goi mailako artea, behe mailakoa). Horregatik, artea, kultura eta gizartea oinarri hartuta lan egiten badugu, aukera sorta anitzagoarekin aurkituko gara eta ez ditugu inolaz ere, baztertuko jardun artistiko desberdinak. Modu berean, arteak, kulturak eta XIX. mendeko ideiek, gizartean zer nolako inplikazioak dituen ikustea axola zaigu eta diru publikoarekin kudeatuko diren arte jardueren egileetatik, gutxienez erdiak, emakumeak izango direla bermatuko dugu.

► Nola definituko zenuke Arte Feminista?

Testuinguru sozial eta historiko batean sortzen den artea da, arte guztiak bezala, gizarteko emakumeen mugimendu feministaren eskaera berdintasunez jasotzen duena. Arte Feministak, emakumeak nola irudikatzen diren eztabaidan jarri eta gizonezko zein emakumezkoen arteko desberdintasunak bere oinarria duen ezkutu-ko eta ageriko tramak azaleratzen ditu. XX. mendean gehien eraldatu den abangoardia dugu, sexuen sistemari erreparatuz, irudikapen sistema osoa zalantzan jarri baitu. Ikuspuntu honek, emakumeei ezezik, gizonezkoei ere eragiten die. Horregatik ari gara lanean, artea, kultura eta gizartea triadan, genero ikuspuntutik, eta sexuen arteko berdintasuna bermatuko duten politikak areagotu nahian.

► Epe motzerako zenbait jarduera?

Nazioarteko erakusketa handiak burutzen ari gara, XXI. mendeko elkarriketa globalaren partaide izan gaituzten. Halaber, artea oso alor elitista bilakatu denez eta gurea zerbitzu publiko bat denez, Arte Garaikidea kodetzen hasteko saiakeran, heziketa proiektu bat martxan jarri nahi dugu, kode hauek heritarrengana hurbildu eta artea ulertu eta goza dezaten. Momentu hauetan, Montehermoson, otsailean inauguratu zen "Switch on the power, ruido y politicas musicales" nire erakusketa dago ikusgai maiztaren 4ra arte. Bertan, zati bisualen eta musika jarduera desberdinen (rock-a, pop-a eta musika elektronikoa) arteko harremanak erakusten dira. Oro har, Arte Garaikideko erakusketak burutuko ditugu, hitzaren esanahirik zabalena aintzat hartuta. Arte Garaikidea ezagutza bide bat da, mundua beste era batean ikuseko modua. Horrez gain, Montehermosotik martxan jaritako beken erdia, artista emakumezkoen zuzendua egongo da eta beka bat, estreinakoz espainiar estatuan arte feministaren historiografia idaztera zuzenduko da.

[PROTAGONISTA]



Mikel Ibañez

ETAko kide izatea egotzita eta Baltasar Garzon epaileak zabaldutako euro agindua dela medio, atxilotu dute Mikel Ibañez Oteiza, Uru-guain bizi den 52 urteko elgoibartarra. Montevideotik zetorren hegazkinetik jaitsi eta berehala atxilotu zuen Frantziako Poliziak Parisko Charles de Gaulle aireportuan. Baltasar Garzonek 1988an izan zen Elgoibarko Patxi Zabaletaren hilketarekin lotzen du Mikel Ibañez. Medioetan azaldu denez, 94an Espainiara estraditatu zuten eta ustez Aizpiriren hilketan parte hartzeagatik epaitu izan zen. Proba faltagatik aske utzi zuten 95ean.

[NOTIZIA]

Bidaiarientzako garraio zerbitzu berria jarriko da martxan astelehenean

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Elgoibarko, Debako, Mendaroko, Mutrikuko, Soraluze eta Ondaruko Udalek errepide bidezko garraio publikoa sustatzea adostu dute. Honela, martxoaren 19tik aurrera, autobus linea berriak eta maiztasun handiagoak jarriko dira martxan. Horretarako zazpi gidari gehiago beharko dira eta hiru ibilgailu berri eskuratuko dituzte. Guztira 300.000 euroko kostua izango du zerbitzu berriak.



Helburuak

Joxe Joan Gonzalez de Txabari Gipuzkoako Diputatu Nagusiak eta Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako foru diputatuak aurkeztu zituzten zerbitzu honen bi helburu nagusiak: bate-

tik, Eibar eta Deba lotuko duten linea azkarrekin egungo zerbitzua hobetzea, eta bestetik, Debabarreneko herriak artikulatzea eta Eibar eskualde buruarekin lotzea, maiztasuna handituz. Gainera, Itziar eta Deba artean taxi-bus zerbitzua jarriko da.

[ZENBAKIA]

90.000

Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Ermua eta Mallabiko 90.000 biztanleren hondakin urak garbituko ditu Apraizko araztegiak. Joan zen barixakuan inauguratu zen araztegiak 16,22 milioi euroko kostua izan du, Foru Aldundiak %60a ordaindu du eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak %40a.

asteko [ARGAZKIA]



Odol ateraldiek eszenatoki berria izan dute hilabete honetan. Eszena bitxia argazkian ikusten duguna, ezta?. Joan zen barixakuan ateratako erretratua da. Odol Emaileen ohiko lokalean obretan ari dira, eta udal-letxeko Pleno Aretoran egin dira odol ateraldiak. Hala ere, herritarrek ez zuten kale egin, eta asko izan ziren odola ematera gerturatu zirenak. Odol Emaileen lokalean tuberia sistema aldatzen ari dira, antza denez, ur isurketak zeudelako. Obra hauek bi hilabetez luzatuko direla esan digute, beraz, lehen bai-lehen itzuliko dira ohiko lokalera.

IMHren euskarazko eskaintza %19koa izan da 2006. Urtean



Goazen Euskara Planaren barruan, 2006. urtean eginiko lanaren balorazioa egin zuten IMHko arduradunek eguaztenean, Elgoibarko udalarekin. Bertan azaldutakoaren arabera, euskara planean adostutako helburu nagusia gaingitu du IMHk 2006an, eta beraien euskarazko eskaintza %19koa da. Kontuan eduki behar da, 1999an IMHn ez zela formazio ordurik eskaintzen euskaraz. Gauzak horrela, IMHko irakasle eta langileek %51ko erabilera egiten dute ahoz eta %34 idatziz. Azpimarratzekoa da dokumentu laburren %78a euskaraz

idatzi zirela iaz. Euskararen ezagutzari dagokionez, langileen %59ak EGA edo 2. Hizkuntza Eskakizuna dauka, eta 15 langilek euskara ikastaroak jaso dituzte.

Etorkizunari begira

2003an jarri zuten martxan Goazen Euskara Plana Ahize-AEK eta Udalaren laguntzaz. Aurrera begirako erronken artean, euskararen erabilera %5ean igotzea, 30+10 mintegia antolatu eta aldi bereko itzulpena 8 ekitalditan egitea aipatu zuten. IMHkoek eskerrak eman dizkiete Udala eta Ahizeri emandako laguntzagatik.

[MOTZ-MOTZIAN]

Saharako umeak udan ekartzeko kanpaina

Udalak jakinarazi duenez, aurten ere, Saharako haurrak udan gure artera ekartzeko kanpaina jarriko du martxan. Programa honetan parte hartu nahi dutenek Elgoibarko Udaltzeko Ongizate Sailarekin jarri beharko dute harremanetan martxoaren 30a baino lehen. Kanpaina hau Euskadiko Frente Polisarioaren ordezkariak antolatzen du.

Larrialdietarako ikastaroa Aubixan

Balmasedako Babes Zibilekoen eskutik, larrialdietarako ikastaro bat izango da bihar, zapatua, goizeko 10:30etik aurrera Aubixa baserrian. Bertan, larrialdietan nola jokatu behar den irakatsiko dute. Estintorea nola erabili, suaren hiru kantoiak, su motak, sua itzaltzeko praktikak egingo dira estintorearekin eta ezbehar bat gertatuz gero, lehen laguntzak. Ikastaro irekia da, herritar guztiek hartu dezakete parte.

Hilekoari buruzko tailerra

Elgoibarko Gazte Asanbladak eta Biluzik Sexologia Zerbitzuak hilekoari buruzko tailerra antolatu dute. Tailerra gaztetxean egingo da, bihar, zapatua, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara, eta sarrera dohainik izango da.

IMH sariak

Datorren martxoaren 30ean ospatuko da IMH sarien 5. edizioa. Ikasketa garaian eta ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren Heziketa Zikloetako ikasleei errekonozimendua egiteko antolatzen dira sari hauek. Aurtengoan, enpresek beraien hautagaiak aurkezteko aukera izango dute, izan ere, IMHk enpresa munduari egin dio ikasle ohi aipagarria proposatzeko deialdia. Epea hilaren 19an amaitzen da.

San Rokeko haurtzaindegia atek ireki ditu



Luze joan dira San Rokeko haurtzaindegia berritzeko obrak, baina azkenean, bukatu dira. Ostiral arratsaldean izan zuten gurasoek instalazioak bisitatzeko aukera, eta Pilar Ikastetxeko gelak utziz, aste honetan itzuli dira umeak eta irakasleak San Rokera. Dena berri-berri aurkitu dute. Eraikinak dituen hiru solairuetan egin dira berrikuntzak. Obrak egiteko 222.867,47 euro inbertitu ditu Udalak. Honekin batera, 106.930 euro gastatu dira altzariak erosteko. Besteak beste, aulkiak, mahaiak, sehaskak eta jostailuak erosi dira.

Inkesta

Autobus linea berriak jarriko dira martxan Debabarrenean.

Nolakoa da, zure ustez, Debabarreneko garraio publiko zerbitzua?

NAGORE LUETXES

Ikaslea
19 urte



“Eibarrera joateko zerbitzua ona da, baina Soraluze, Bergara eta Gasteiz aldera joateko oso autobus gutxi dago. Zerbitzua garestia da, Donostiarakoa batez ere.”

FERNANDO HURTADO

Errektifikatzailea
34 urte



“Ez dakit, ez dut inoiz garraio publikoa erabiltzen. Edozein tokitara joateko autoa hartzen dut, askoz erosoagoa da eta ez zara autobusaren zain egon behar.”

M^a JESUS INTXAUSTI

Erizaina
46 urte



“Ni Mendarora asko joaten naiz, eta zerbitzua ona da. Gasteiz eta Bilbora joateko ez dago zerbitzu nahikorik. Prezioa igo egin da berriz; garestia da.”

MAITE PEREZ

Irakaslea
43 urte



“Eibarrera joateko oso ondo dago. Debagoienarako ez dago hain ondo, denbora asko galtzen da eta Bilborako autobusa Eibarren hartu behar da. Hobetu daiteke.”

[BAI ala EZ?]

Izan al zara inoiz Muffomi museoan?

BAI %6

“Bai, behin izan nintzen, kasualitatez. Oso ondo dago museoa, ikaragarria da Elgoibarrek daukan aberastasuna. Museo honek propaganda gehiago merezi du, jendeak ez du ezagutzen.”

EZ %94

“Ez, eta egia esan behar badut, ez nekien Elgoibarren honelako museo bat geneukanik ere. Seguru oso ondo dagoela eta interesgarria dela, baina informazioa falta da.”

Datorren asterako... **Al Qaedak Espainia mehatxatu du aste honetan.**

Jarraitzen al duzu M11ko epaiketa?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozei.com

Edergintza

Mesoterapia, presoterapia eta drenaje linfatikoa



Mesoterapia: Gorputz mesoterapia zelulitis zehaztugabea ezabatzeko tratamendua da. Azalaren (laranja azala) hobekuntza, bolumena gutxitu eta hanken nekea gutxitzea lortzen da. Erabiltzen diren produktuak guztiz naturalak dira, eta zuzenean eragiten dio ehun gizenari; grasa zelulak, soberan dagoen grasa eta ura askatuz. Bezeroak daukan grasa kopuruaren arabera, sustantzia bat edo bestea erabiliko da.

Zertan datza? Orratz motz eta fin batzuen bidez, azalaren gainean botika tanta txiki batzuk jartzen dira, zain nagusien inguruan eta zelulitisa dagoen azalera guztian. Loditasun tratamenduetan, grasa asko dagoen eremuan ziztada desberdinak ematen ditu sendagileak orratz fin batekin. Ziztada hauen helburua adipozitua (grasa biltzen duen zelula) estimulatzea da, organismoak grasa hori kanporatu eta kaloria bezala erabil dezan. Zelulitisa sendatu nahi denean, berriz, medikuak zelulitisa dagoen eremuetan bakarrik jarriko du medikamentua. Honela, naranja azalaren itxura ematen duten likidoen drenajea martxan jarriko da.

Drenaje linfatikoa eta presoterapia masajeak dira. Lehorrean egiten da, mugimendu geldo eta progresiboaren bitartez. Honekin

linfaren ohiko zirkulazioa lortuko da. Eskuz edo makina bereziekin eman daiteke masajea. Horixe da drenaje linfatikoa eta presoterapiaren arteko diferentzia, lehenengoa eskuz egiten da eta bigarrena mekanikoa da.

Zertan datza? Drenaje linfatikoa olio berezi batzuekin egiten da. Sustantzia organikoak, toxinak, ura, gatzak, grasa... mugitzen ditu, hau da, gorputzetik ahalik eta bizkorren bota behar diren elementuak.

Presoterapiak, bestalde, presioa erabiltzen du, positiboa edo negatiboa, Medikuntza Estetikoan, organismoaren gainean huts bat sortzeko, eta zirkulazioaren estimulazioa lortzeko.

Judith Zabala - Judith Edergintza



Judith
EDERGINTZA

Errosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118

Olaia
e s t e t i k a

Egin ezazu otsailean laser depilazioa eta ahaztu udan depilatzeaz.

San Inazio, 4 behe - Tel.: 943 74 27 25

- Garbiketak
- Makilajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma (horizontala eta bertikala)
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak

▶ JOHANNA KAWSTINEN FINLANDIA [EUROPA]

«Izugarri gustatu zait Euskal Herriko janaria, oso ondo jaten da hemen»

EUSKAL HERRIARI BURUZ EZERTXO ERE JAKIN GABE ETORRI DA JOHANNA KAWSTINEN GURE ARTERA. EUSKAL HERRIA MAPAN KOKATZEN BAKARRIK ZEKIEN, BESTERIK EZ. 18 URTEKO NESKA HAU SUKALDARITZA IKASLEA DA ETA BOST ASTEZ EGON DA PRAKTIKAK EGITEN GABI JATE-XEAN. GAUZA ASKO IKASI DITUELA KONTATU DIGU, ETA BATEZ ERE, OSO GUSTURA EGON DELA AITORTU DIGU.



▶ Zenbat denborarako etorri zara Euskal Herrira?

Zazpi astetarako etorri naiz. Sukaldaritza ikasten ari naiz eta eskolak atzerian praktikak egiteko aukera eskaintzen zuen. Nire erabakia izan zen Euskal Herrira etortzea.

▶ Zergatik aukeratu zenuen Euskal Herria?

Nire irakasle bat Bilbon egon zen lanean eta berak gomendatu zidan hona etortzea. Bost asteo praktikak egin ditut Gabi jatetxean. Asko gustatu zait hemen lan egitea, desberdina da hemengo lan egiteko modua, agian gogorragoa da, baina gustatu zait.

▶ Zer moduz moldatu zara?

Oso ondo, oso gustura egon naiz hemen lanean. Gauza asko ikasi ditut, batez ere, arraina sukaldatzen ikasi dut. Hemengo arrainak desberdinak dira. Nire lanean oso ondo konpondu naiz. Ez dut arazorik izan, oso jatorrak dira denak.

▶ Hona etorri aurretik, ba al zenekien ezer Euskal Herriari buruz?

Ezer ere ez, mapan non zegoen nekien bakarrik, besterik ez. Orain ikasi dut apur bat gehiago.

«Hemengo jendea
alaiagoa da, bizitza
sozial gehiago dago»

▶ Egin al duzu turismorik hemen inguruan?

Bai, Donostia, Bilbo eta Zarautzen izan naiz. Asko gustatu zait dena, hondartzak eta kostaldea oso politak iruditu zaizkit.

▶ Euskara ikasteko aukerarik izan al duzu?

Hitz gutxi batzuk ikasi ditut, baina oso gutxi. Zazpi astetan ezin da asko ikasi. Gaztelera zerbait gehiago ulertzeko gai naiz. Hona



iritsi nintzenez gaztelarazko eskolak jaso nituen, baina euskara ikasteko denbora gehiago behar da.

▶ **Zuek suomi hizkuntza hitz egiten duzue. Soinua euskararen antzekoa daukala diote. Horrela al da?**

Ez dakit. Hungariarrarekin antz handia dauka, jatori berekoak dira, baina euskararekin ez dakit nolako harremana daukan.

▶ **Desberdinak al dira Finlandiako eta Euskal Herriko bizimoduak?**

Bai, oso desberdinak. Hango biztanleak serioagoak dira, hemen jende guztia oso alaia da, berehala agurtzen zaituzte kalean, denak irrifartsu etortzen dira tabernara. Bizitza sozial handiagoa dago. Finlandia oso hotza da, gainera. Hemengo negua oso epela iruditu zait.

▶ **Euskal Herrian oso ondo jaten dugunaren fama daukagu. Zer deritzozu?**

Bai, hala da. Izugarri gustatu zait hemengo janaria, oso ondo jaten da hemen. Euskaldunentzat jatorduak oso garrantzitsuak dira, dena mahai baten inguruan eserita ospatzen dute. Finlandian ere gustuko dugu jatea, eta egiten ditugu ospakizunak. Guk gosariari garrantzia handia ematen diogu, nire ustez, eguneko jatordurik garrantzitsuena da.

▶ **Zein da Finlandiako janari tipikoa?**

Ez dago bertako-bertakoa den jatekorik. Arrain asko jaten da han, eta haragien artean arkumea da ohikoena. Barazki eta sopak ere asko jaten dira, patatak... Jateko merkea. Dena dela, janariak oso modu desberdinean prestatzen ditugu, arraina adibidez, beti labean egiten da.

▶ **Zein da zure espezialitatea?**

Ez dakit! Gauza asko prestatzen ditut, baina ez daukat espezialitaterik. Gabiko Carlosek esan beharko du hori.

▶ **Zein da gehien gustatzen zaizun jatekoa?**

Haragia, orokorrean. Arraina baino askoz gustorago jaten dut.

▶ **Eta gutxien?**

Txipiroiak ez zaizkit gehiegi gustatu. Ez dira txarrak, baina oso onak ere ez.

▶ **Zein oroitzapen eramango duzu Euskal Herritik?**

Hemen ezagutu dudan jendearekin gelditzen naiz, esperientzia polita izan da.

▶ **Itzuliko al zara berriro Euskal Herriara?**

Bai, asko gustatu zait Euskal Herria eta etorkizunean etorriko naiz berriro, ez dakit noiz, baina bisitatuko zaituztet.



FINLANDIA

- **Hiriburua:** Helsinki
- **Azalera:** 338.145 km²
- **Biztanleria:** 5,231 milioi
- **Langabezia:** %8,4
- **Bame produktu gordina:** 29.629 euro/biztanleko urtean.
- **Gobernua:** Errepublika.
- **Hizkuntza:** Suomi-a.



Johanna Gabiko jantokiko mahaian.

GAZTIA NAIZ

txApeLa bURuAN...



Miriam Garcia

24 urteko neska elgoibartar honek bi urte eta erdi daramatza Milanen, (Italian). Argazki honetan, Milaneko parke nagusian ikusten dugu Miriam, Parco Sempione parkean, alegia. Fondoan ikusten den gaztelua Castello Sforzesco da.

Diseinu Industrialeko Ingeniaritza ikasi zuen neska honek Arrasaten, eta orain bigarren zikloa egiten ari da Milanen, Unibertsitateak eskainitako beka batekin. Ikasketak amaitzeko doktorego tesia egitea falta zaio. Unibertsitateko hiru lagunekin bizi da, euskaldun bat eta bi finlandiar.

Orain, lanean hasi da, eta esan digunez,aldi berean ikasi eta lan egitea oso gogorra omen da. Atzerriko abentura hau noizbait bukatuko dela jakin badaki, beraz, kanpoan dagoen denbora ahal duen gehien aprobetxatzen saiatzen da. Oso gustura dago, eta atzerrian denbora oso azkar pasatzen dela esan digu.

Zaila izan al da bizimodu berria ohitzea?

Ez. Aldaketa handia izan zen hona etortzea, eta horrek beldurra ematen du, baina egoera berri bati aurre egin beharra oso interesgarria da eta etxetik kanpo bizitzeak ematen dizun independentzia oso aberasgarria da.

Nolakoak dira italiarrak?

Oso irekiak dira eta hitz egiteko gaitasun izugarria daukate. Oso erraza da pertsona berri batekin hitz egiten hastea, gero tratu sakonago bat edukitzea zailagoa izan arren. Hala ere, eta batez ere Milanen, modaren eragina asko igartzen da, marken menpe bizi dira batzuk, eta hori personalitatean islatzen da. Materialistak eta superfizialak dira askotan. Gu naturalagoak gara zentzu horretan.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Hainbeste jende ezberdin ezagutzeko aukera izatea. Milanen leku guztietako jendea dago: finlandiarrak, txilenoak, iraniarrak... kultura, erlijioa eta hizkuntza oso ezberdinak izan arren, bi pertsona elkar ulertzen direla ikusteak poztzen nau.

Eta gutxien?

Kutsadura. Bestalde, Italia estatu bezala desastre bat da eta antolaketa falta igartzen da arlo guztietan: unibertsitatean, osasun zerbitzuan, garraiobideetan... Gazteen lan egoera ere penagarria da.

Euskal Herriko janariaz gogoratzen al zara?

Italianoak oso harro daude beraien gastronomiaz, eta egia esan, hemen ez da gaizki jaten, baina egunero-egunero pasta jatea gehiegizkoa da. Gure gastronomia askoz aberatsagoa dela uste dut.

Zer dago ikusteko Milanen?

Milan oso hiri kosmopolita da, eta agian ez dauka hainbeste nortasun, Roma, Venezia edo Florentziarekin konparatuz, baina badauka bere xarma. Milaneko katedrala eta gaztelua izugarriak dira. Kanalak ere oso politak dira. XV mendean Milan kanalez beterik zegoen, gaur egun bi kanal bakarrik gelditzen diren arren. Kale estuak, plazatxo txikiak, taberna bereziak... Gauza txiki horiek dira hiriarri xarma ematen diotenak.



biñuzik sexologia txokoa

Eider Goiburu [Sexologoa]

Martxoak 8

Urtero bezala, iritsi da martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Berdintasunaren alde borroka egiteko eguna, emakumeen eskubideen alde. Baina emakume guztien alde egiten al dugu borroka? Gaurkoan Eider Goiburu sexologoak emakume desberdinei buruz hitz egin digu.

Kalean goazenean gero eta emakume desberdin gehiago ikusten ditugu, gero eta emakume etorkin gehiago dago gure inguruan.

Gu, berdintasunaren izenean, etxetik atera eta kalera joan gara lanera. Baina, gizonak ez dira etxean sartu, ez da parekidetasunik lortu eta etxeko lanak norbaitek egin behar ditu, bestela gizarteak ezin du aurrera egin. Eta nor hobeto kanpoko

emakumeak baino lan hauek egiteko?. Hain goxo hitz egiten diete gure aitona-amoniei eta gure seme-alabei, ezta?

Kanpotik datozen emakumeetatik %30ak bigarren hezkuntza edo ziklo formatibo ikasketak eginak ditu eta hala ere, guk nahi ez ditugun lanak egin beharrean daude, eta gainera askotan kontratu gabe, soldata eskasarekin, lan baldintza txarrekin... Azkenean, emakume eta gizo-

nen arteko berdintasuna lortu beharrean maila ekonomikoaren arteko diskriminazioa lortzen ari gara. Hau al da nahi dugu mundua?

Emakume guztien alde egin behar dugu borroka eta ez gure alde bakarrik. Ez ditzagun beste emakumeak zapaldu, denok gara emakumeak eta denontzat dira lortutako eskubideak, ez dezagun gure artean bereizketarik egin!



LANA

UDALEKUETAKO BEGIRALEAK

Monitoreak behar dira Euskadiko zenbait lekutan Mondragon Linguak 7-14 urteko haurrentzat uztailaren antolatzen dituen ingelesko udalekuetarako. Curriculum bidali svazquez@mondragonlingua.com helbidera edo posta bidez Silvia Vázquez-en izenean, edota entrega ezazu Mondragon Lingua idazkaritzan. Epea: 2007-03-21

EGO-RAKO ENTZUNALDIAK

Euskadiko Gazte Orkestra Fundazioak deituta, 16 eta 27 urte bitartekoentzat. Baldintzak: EAEn edo 150 km-ko inguruan jaioa izatea, gaur egun EAEn bizi izatea, gutxienez erdi-mailako ikasketak edo baliokideak egiten ibiltzea edo tresna jakin bateko musika eskola batean aritzea. Entzunaldia apirilaren 5etik 9ra. 2007ko lan-aldietara joateko konpromisoa hartuko du. Epea: 2007-03-21

27 UDALTZAIN DONOSTIAKO UDALERAKO

Baldintzak: 18 urte beteta eta 32 urte bete gabe izatea. Eskola graduatua, lanbide heziketako 1. maila edo baliokidea izatea, gizonetzkoek, gutxienez 1,65 metro luze izatea, eta emakumezkoek, 1,60 metro. Euskarazko, 2. hizkuntz eskakizuna. Epea: 2007-03-21

BEKAK

LITERATURA SORKUNTZAKO IGARTZA BEKA

35 urtetik beherakoentzako. Saria: 6.000 euro Narratiba lanak, eleberri edo ipun-bildumak. Orijinalak eta euskaraz. Epea: 2007-06-29 Informazio gehiago: 943 028063

LEHIAKETAK

XXXVII. KUTXA IRUNGO HIRIA LITERATURA SARIAK

Poesian: Euskarazko edo gaztelarazko poesiak egin daitezke. 10.000 euroko saria jasoko du irabazleak. Errima, neurri eta gai libreko poesiak egin daitezke, baina gutxienez 800 leroko luzera izan behar dute. Epea: 2007-06-10

Eleberrian: Gaztelaniarazko edo euskarazko eleberriak egin daitezke. Lanen gutxienezko luzera 125 orrikoa izango da, gai eta narrazio libreekin. Dirua: 14.000 euro. Epea: 10-06-2007

GRANITOROCK ROCK LEHIAKETA

Espainiako estatuan bizi diren gazteek osatutako rock taldeak hartu dezakete parte. Gutxienez taldearen %70ek 32 urte izango dituzte gehienez ere eta gainerakoek ez dituzte 35 urte baino gehiago izan behar. Aukeratuak uztailaren 27an edo 28an emanaldi bat eskainiko dute Granito Rock Jaialdian, Obus, Avalanch, Silver Fist eta Udo taldeekin batera. Epea: 2007-04-30

IKASTAROAK

DYA-REN SOROSPEN ETA LEHEN LAGUNTZAKO IKASTAROA

3 asteko iraupena izango du. Asteleheneetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara. Edukia: Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erredurak... Teoria eta praktika tar-tekaturako dira.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

☎ 943 741 461



Asteartetik ostiralera

17:00-20:00

PASCAL TROTTA
MEDIKUA

«Elikadura okerra izaten da minbiziaren motorra»



Haizea Emakume Taldeak antolatuta, Pascal Trotta mediku frantsesak elikadurak gure osasunean daukan garrantziari buruzko hitzalida eskaini zuen Kultur Etxean. Bordelen jaiotakoa izanik, Parisen ikasi zuen medikuntza. Radiologoa da, baina alaba zeliakoa dauka eta glutenik gabeko dieta egitera behartuta dago. Hortik abiatuta hasi zen medikuntza naturala sakontzen. Egun, homeopatia, elikadura eta belarri akupuntura aditua da.

► Nola eragiten digu elikadurak?

Osasunaren oinarria da elikadura. "Fast-food" delakoetan jaten duten iparamerikarrak lodiak daude, eta bihotzekoak eta minbizi kasu pila bat dituzte. Okinawako irlan bizi diren japoniarrak, aldiz, arraina, barazkiak eta soja jaten dituzte, meheak dira, eta ez daukate minbizerik. Ez da genetika kontua. Japoniarra AE-Betara joaten bada, ondo jatea ahazten zaio eta 10 urtetan, amerikarrek dituzten gaitz berberak izango lituzke.

► Beraz, jaten duguna gara?

Ez da gutziz zehatza esaldi hori. Geneak, elikadura eta gure burmuinaren arteko emaitza gara. Hau da, ondo jan arren, pentsakera negatiboak dituen pertsona batek, genetikoki minbizia izateko arriskua duela uste badu, seguruenik izango du. Ez da ona elikadura modu bortitzean aldatzea, orekatuta egin behar dira gauzak. Dena dela, gaizki jaten duen pertsonak 60 urte bete baino lehen gaixotasun larriak izango ditu.

► Zer da ondo jatea?

Erantzuna oso zaila eta luzea da. Nire kontsultan aholku pertsonalak ematen ditut, norberaren gaixotasun eta arriskuak kontuan izanik. Diagnostika egin behar da lehenengo eta gero gaixoari egokitu, bere adina kontuan hartuz.

► Egungo gizakiak gaizki jaten al du?

Ohituren arabera, baina normalean jendeak gaizki hasten du eguna, eta noski, gaizki amaitzen du. Kafesnea eta gailetak gosaltzen ditu gehiengoak eta hori ez dago ondo, azukrezko elikagai azkarrak direlako. Proteinak jan behar dira eguneko hiru jatordu nagusietan, eta goizean ondo gosalduta behar da, egun osorako indarra behar dugulako.

«Gure osasunaren oinarria da elikadura»

► Elikadura onak minbizia agertze-ko arriskua gutxitzen al du?

Normalean, minbiziaren motorra elikadura okerra izaten da. Ohiturak aldatu behar dira, elikagai biziak eta freskoak jan, naturalak. Egungo tratamenduei aurre egiten laguntzen du. Ondo janez gero, minbiziaren motorra ez da piztuko.

► Botika eta elikagai kimiko asko hartzen al dugu?

Bai. Medikuntza ikasleei ez zaie homeopatia, akupuntura, fitoterapia eta elikadura bizia erakusten. Orduan, medikuek diagnostika egiteko baliabide onak dituzte, baina sendagaien zati bat bakarrik erabiltzen dute; kimikoa. Gorputzari erremedio suabe eta naturalagoak eman behar zaizkio.

► Zu medikuntza ekologikoaren aldekoa zara. Zertan datza?

Gorputza kimikoekin ez zikintzean datza. Gorputzaren oinarriko legeak errespetatu behar ditu. Egungo arazoak etorkizuneko mundua dira. Munduko herrialde guztiek pestizidak erabiltzen jarraitzen badute eta gure gorputza botika kimikoz betetzen badugu, nolakoa izango da ondorengo mundua?. Medikuntza eta nekazaritza askoz ekologikoagoak izan behar dira.

► Ecuadorreko ospital bati laguntzen diozu, ezta?

Bai, han ez daukate ezer, jendearen dirulaguntzekin egiten dute aurrera. Haizea Emakume Taldeari eskerrak eman nahi dizkiot eman digun diruagatik. Langileak, jatekoa eta tratamenduak ordaintzeko dirua behar dugu. 20 euro ematea beraiantzat izugarria da. Laguntzeko interesa dutenek, jar daitezela nirekin harremanetan: pascal.trotta@orange.fr

KORRIKA KULTURALA

“Tabuak saltsa berdean” ikuskizuna gaur Musika Eskolan

Korrika kulturalaren baitan antolatuta diren ekitaldien artean, gaur, “Tabuak saltsa berdean” ikuskizuna izango dugu, Mikel Markez abeslariaren eta Pako Aristi idazlearen eskutik.

Bien arteko elkarlana ez da berria; lehendik ere, eginak baitituzte saio ugari elkarrekin. Hala nola, “Tribuaren hitz galduak” eta “Abiadura handiko urte baten kronika”, biak ere, saio arrakastatsuak izan direlarik.

“Tabuak saltsa berdean” izeneko ikuskizunean, gizarteko tabuak izango dituzte

hizpide eta berauei erreparu bat egingo diete umore eta samurtasun ikutu batez baliatuz eta aldi berean, sakontasunez. Saio honetan, abestiak, musika eta ipuin berriak nahasten dituzte, jendearen bihotzera iristeko asmoarekin.

Emanaldi hau, dohainekoa da eta arestian esan bezala, gaur izango da iluntzeko 20:00etatik aurrera, Musika Eskolako auditorioan.

Ekitaldi hau Udal Euskara Sailaren eta AEK euskaltegiaren lankidetzaz antolatuta da.



Hernaniarrek euren nagusitasuna erakutsi zuten “Elgoibarko Herria Instrumentuen VI. Lehiaketan”



Pasa den zapatuan, “Elgoibarko Herri Instrumentuen VI. Lehiaketa” ospatu zen Musika Eskolako Auditorioan.

Lehiaketa hiru mailatan banatu zen eta kategoria guzietan, Hernaniko taldeak izan ziren garaile: oinarrizko maila leian, 7 talde aurkeztu ziren eta Hernaniko Musika Eskolako Leoka taldeak eskuratu zuen lehendabiziko saria. Oinarrizko maila IIan berriz, 5 talde aritu ziren aurkari eta azkenean, Txantxilla Hernaniar taldeak lortu zuen garaipena. Maila honetan, Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako Shrek tal-

deak bigarren saria eskuratu zuen “I’m believer” doinuarekin. Azkenik, maila ertainean, 9 taldek jardun zuten. Kategoria honetan, lehen saria, Hernaniko Hernasax taldearentzat izan zen bitartean, Latonika Elgoibartar taldeak hirugarren postua erdietsi zuen, “Let’s all take it easy” doinuari esker. Guztira Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 150 ikaslek hartu zuten parte, nahiz eta gehienak, gipuzkoarrak izan. Horren adierazgarri, Gipuzkoako 11 Musika Eskolako ordezkariak izan ziren gure herrian. Musika ekitaldi jendetsua izan zen.

“Txorixak galduta egozian” luzemetraia datorren ostegunean ikusgai

Korrika kulturala aitzakiazak hartuta antolatzen den beste emanaldietako bat dugu metraje luzeko dokumental hau. Jose Maria Gonzalezek ekoiztua 2006. urtean. Filme honetan, baserri batean aintzinako modura bizi den familia baten bizimodua kontatzen da. Egun batean, beraien altxor preziatuenetako bat bota beharrean aurkituko dira; ehun urteko pago bat, hain zuzen ere. Horrela, zuhaitzaren enborrak bere ibilbidea hasiko du, eta denbora horretan, baserrian bizi den sendiaren eguneroko bizitza, bizitzaren alor desberdinak eta euskal kultura bera erakutsiko zaizkigu. Azkenean, bidaiaren benetako zentzua agerian geratuko da.

Proiektzio hau dohakoa izango da eta Herriko Antzokian izango da, datorren ostegunean 21:30etik aurrera.



ESKU PILOTA

Lagunak Pilota Eskolako arduradunak omendu zituzten X. Pilota Egunean



Aurreko zapatuan, martxoak 10ean, X. Pilota Eguna ospatu zuen Elgoibarko Ikastolak. 6-14 urte bitarteko 64 neska-mutilek parte hartu zuten binakako esku pilota partidetan. Guztira, 16 esku pilota partida jokatu ziren. Kirol ekitaldia goizeko 10:00etan hasi zen eta eguerdiko 13:00ak aldera arte luzatu zen. Aurtengoa X. edizioa izan denez, Lagunak Pilota eskolako arduradunak diren Juan

Mari Elustondo eta Antonio Azpiazuri omenaldia egin zitzairen, urtero beraiekin izan dituztelako Pilota Egunean lanean eta laguntzen. Bestalde, kirol ekitaldiari berezitasun gehiago emate aldera, Mikel Unanue pilotari profesional añorgarra ere Pilota egunean izan zen eta parte hartzaile gaztetxo guztiei, galtzaile nahiz irabazleei oroigarri bana banatu zizkien. Ikastolako frontoia jendez bete zen eta oso giro

ona bizi izan zuten bertaratu ziren guztiek. Kirol ekimen honen xedea, gaztetxoaren artean pilotarekiko zaletasuna piztu eta sustertzea da eta zapatuko erantzuna ikusita, lortu dute neurri handi batean.

Amaitzeko, adierazi, Ikastolak eskerrak eman nahi dizkiela, Euskadiko Kutzari eta Astigarraga kirolak dendari, egun hau antolatu ahal izateko beraiengandik jaso duten laguntza guztiagatik.



ESKERTZA

2007ko martxoaren 12an hil zen
Jose Jaio Iturriagaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko martxoaren 13an hil zen
Maria Zabala Larrañagaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



BOLOAK

Bihar jokatuko da Hiru Txirlo bolo txapelketako lehen jardunaldia Soraluzen



Gipuzkoako 2007ko Hiru Txirlo Bolo Txapelketak, aurtengoa bere 38. edizioa du. Bihar zapatua, Soraluzeko San Andres auzoan dagoen bolatokian izango dute aurreneko partida bolo jokalariek arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Elgoibartik ere, federaturik dauden 38 lagunetatik, 28 inguruk parte hartuko dutela jakinarazi digu, bolo jokalaria den Angel Ibarluzeak. Bolo zale zarenok, Elgoibarren txirlo jokoa ikusteko aukera, martxoaren 24an, 31n eta maiatzaren 12an izango duzue. Datorren zapatuan, hilak 24, San Rokeko bolatokian jokatuko dira partidak. Martxoaren 31n, beriz, San Migelen, eta azkenik, maiatzaren 12an, San Pedroko Idotorbe bolatoki eraberrituan. Honen hariara, aipatu, 70 bat lagunek hartu zutela parte, San Pedroko bolatokiaren inaugurazio eguneko partidaren eta Egoitz Blanco eibartarra izan zela garaile, Gipuzkoako txapelketaren baitan, guztira, bederatzi jardunaldi jokatu dira Soraluze, Elgoibar, Deba, Elgeta, Azkoitia eta Eibarko herrietan.

Opakua eta Azazetara egingo da domeka honetan mendi irteera

Morkaiko Mendizale Elkartek domeka honetarako mendi irteera antolatu du. Oraingo honetan, Opakua eta Azazeta mendateen arteko mendi lerroa ezagutzeko gonbitea luzatzen digute. Irteera ohi bezala, Plaza Handitik egingo da, goizeko 8:30ean. Guztira 4,5 orduko iraupena izango du txangoak eta eguraldia lagun badute, bista ederrak ikusiko dituztela jakinarazi digute antolatzaileek. Agurain ondoan dagoen Opakuako mendateetik abiatuko dira mendizaleak, Arrigorrista izeneko mendirantz zuzenduaz. Behin gaina hartuta, mendilerro lau batetatik ibiliko dira, beren eskuinaldean Arabako lautada izango dutelarik. Tontorrak bata bestearen atzetik gaindituz, Santa Luziako



mendatea igaro eta Gasteizko mendietan barneratuko dira Azazetako mendatera iristeko. Aurretik eta helmugara heldu baino lehen, Indiaganako tontorra egin behar dute. Honako irteera, Arabako lautada, Aizkorriko mendikatea, Izki mendiak eta Kantauriar mendikatea ikusteko ibilbide aipatzen dugu.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Lagun Onak 1 - Haundi 0
Elgoibar 3 - Allerru 0 (erreg.)
Elgoibar 3 - A. Ondarroa 3 (O.inf.)
Elgoibar 4 - Aloña Mendi 2 (Nesk.)
Elgoibar 1 - Zumaiako 4 (Aleb.)
Koskas 4 - Elgoibar 1 (Jub.)
Lazkao 0 - Elgoibar 3 (Kad.)
S. Herrera 1 - Elgoibar 2 (Inf. txiki)
Amaiak bat 3 - Pedrusco 0

ESKU PILOTA

Udaberi Txapelketa

Antiguako 22 - lagunak 19 (1. mail. jub.)

Debaroko Txapelketa

Lagunak 1 22 - Olalde 9 (nagus.)
Lagunak 2 4 - Eskoriatza 22 (nagus.)
Aretxabaleta 22 - Lagunak 19 (nagus.)
Eskoriatza 22 - Lagunak 8 (kad.)

ARETO FUTBOLA

Aiete 5 - Kenci 3 (2. mail. gipuzk.)
Elgoibar 1 - Relojes Mondaine 6 (Jub.)

ESKUBALOA

H. Txariduna 16 - Tolosa 27 (Inf.mut.)
Tecnifuelle 30 - Ford Mugarre 28 (Senior. mut.)
Lojantzi 23 - IES 23 (Senior. nesk.)
Tecnomec A 38 - Gaztelueta 29 (Kad.mut.)
Pneumax 27 - Gaztelueta 26 (Jub. mut.)
Ereintza 23 - IMH 22 (Kad.nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 17
12:00 Elgoibar - Intxurre (Kad.)
18:15 Elgoibar - Urola (nesk.)
Domekia, 18
10:00 Elgoibar - Mutriku (Aleb. lagunartekoa)
12:00 Elgoibar - Vasconia (Inf. txiki)
17:00 Haundi - Alaves

ESKUBALOA Kiroldegian

Zapatua, 17
16:00 Aterpe - Pulpo B (Inf. nesk.)
17:30 IMH - Aiala B (Kad. nesk.)
Domekia, 18
11:00 Aterpe - Gamon (Inf. nesk.)
12:15 Olalsa - Aloñamendi (Inf. nesk.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFEAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrena **05/06**

Jokalaria	Puntuak
1. Navarrete	47
2. Guinea	34
3. Iker Martinez	32
4. Iribar	24
5. Arruti	26
6. Alex Del Rio	19
7. Loren	15

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea dalgai San roken. Eguzkitsua, erabat berriua. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta arropa esekileku. Garajea eta ganbara. ☎ **943740194**
- ▶ Duplex-a salgai Artetxe kalean. 4 logela, sukalde, egongela, bainugela. Eguzkitsua. ☎ **696266982**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldel-jangela. 120m². Gas naturala, 60m²ko ganbara. ☎ **688650060**
- ▶ Duplex-a salgai Urasandin. 86m² eta 3m²-ko balkoia. 3 logela, sukalde, egongela, bainua eta komuna. Trasteroa. Kanpoaldera begira, hegoalderantz, eguzkitsua. ☎ **943744403**

- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukalde, egongela, bainugela. 84m². ☎ **646668551**

ALOKAIRUA

- ▶ Elgoibar edo inguruan logela bat hartuko nuke alokairuan. ☎ **667733671 (Arrate)**
- ▶ Logela bat alokatzen dut. ☎ **943741881/635206436**
- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **695788742**
- ▶ Logela bat edo apartamentua hartuko nuke alokairuan. ☎ **671110796 (19:00-21:00)**
- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Mendaron. ☎ **636690861**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Hozkailua, arropa garbigailua salgai (Opsen kontsumo bajukoa), mikrouhina (Linea). 500 euro. Mendiko bizikleta oparitzen dut. ☎ **666148037**
- ▶ Lursaila salgai Eibarren. 22.500m². 16 urteko pinuarekin. ☎ **943033503**
- ▶ Lasturren baseria salgai, terreno eta guzti. 10 hektarea. ☎ **943740037/605741485**
- ▶ Ortua konpartituko genuke. Ura, zimaurra eta lanerako tresnak ditugu. Herriitik gertu. ☎ **655723678**
- ▶ Edergintza bateko makina eta tresnak salgai. 2 ohatila, sauna, solarium, esterilizadorea eta Sorisa etxeko 2 mahai. ☎ **676686758/943743959**

- ▶ Intel ordenagailua salgai. 2.6 GHz, 512 Mb RAM, 40 Gb disko gogorra, DVD grabagailua, modem, 17"-ko pantaila, eskanerra, TV txartela. 250 euro. ☎ **943742291**
- ▶ Telebista salgai. 28", 100 hertzio. Panasonic, pantaila laua, ipurdiarekin. 250 euro. Gutxi erabilia. ☎ **636257546**
- ▶ Apal metalikoak eta lau ume-maniki salgai negozioa ixten delako. ☎ **600230468**
- ▶ Play Station 2rako jokoak salgai. Egoera onean. 10 euro. ☎ **627889259**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje maraduna alokatzen sa San Roke kalean. ☎ **943741436**
- ▶ Garaje itxia alokatzen dut Santa Klaran. ☎ **628764686**
- ▶ Garaje itxia alokatzen dut Urasandi eta Madala artean. ☎ **659141232 (17:00-20:00)**

[AUTOAK]

- ▶ Fiat Ducato autokarabana salgai. 1994. urtekoa. 117.000km. 4 plaza. ☎ **619853564**
- ▶ Mercedes Vito furgoneta salgai. ☎ **620263197**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Mutila igeltsero edo pintore laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **650813847**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **650813847**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ **660511781/943742330**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. Gida baimenarekin. ☎ **628613143**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa edo kamarera lanetarako prest. ☎ **638527915**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **671476869 (Maria)**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **610632782 (Marta)**
- Neska garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **649368137**

- Gizona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **638494501**
- Neska gaztea arratsaldean ume txikiak zaintzeko prest. ☎ **600336245**
- Gizona obretan, igeltsero, edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **616512795**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **639020180**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **943741685**
- Magisteritzako ikaslea (Lehen Hezkuntza) klase partikularrak emateko prest. ☎ **679237611 (Maria)**
- Magisteritzako ikaslea umeak zaintzeko prest, lanegun eta asteburuetan. ☎ **679237611 (Maria)**
- Gizona eraikuntza lanetarako prest. Gida baimenarekin. ☎ **679759371**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin... Gida baimenarekin. ☎ **628613143**

- Bi emakume lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin... ☎ **636120425**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **663569263**

ESKAINITZA

- Eibarko enpresa batek I+D+In lan egiteko ingeniari tekniko industrialak behar du. Bi urteko esperientziarekin. CV. 263 postakutxilara bidali. ☎ **943121608.**
- Eibarko enpresa batek ingeniari elektronikoa behar du. Ingelesa eta bi urteko esperientziarekin. CV. 263 postakutxilara bidali. ☎ **943121608.**
- Eibarko enpresa batek makina berezien montadore mekanikoa behar du. Ingelesa eta bidaiatzeko prest. CV. 263 postakutxilara bidali. ☎ **943121608.**
- Adineko emakumea zaintzeko neska behar da. Atzeritarra ez izatea. ☎ **676894367**
- Larunbatetan tabernan lan egiteko neska behar da. ☎ **670654921**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. ☎ **670250429**

- Egur Arte Tailerrean margo artistikoko klaseak emateko pertsona behar da. Interesatuak Egur tailerera joan daitezke. (Aita Agirre Plaza z/g 2. pisua. 18:00-20:00)
- Uztaileko ingeleseko udalekue-tarako begiraleak behar dira. ☎ **943712055 (Silvia)**
- Emakumea behar da ume bat zaintzeko. Goizez, orduka lan egiteko. Ahal bada euskalduna. ☎ **669339529**
- "Arriskuen prebentziarako teknika" klaseak emateko pertsona behar da. ☎ **943820603**

ABISUAK

- Txanodun txamarra berdea galdu nuen King-Kong eta Aterpe artean martxoaren 12an. ☎ **652738043**
- Perikito berde bat aurkitu dut Upai-Zaharra inguruan. ☎ **943740420**
- Hozkailu bat hartuko genuke lokalera. ☎ **627104915**
- Mutil bat zaintzeko gizona behar da. Gizon aktiboa. Bolondresa. ☎ **943 74 07 01**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Carlos** martxoaren 15ean 10 urte egin zenituelako. Vanesa eta gurasoen partez.



▶ Zorionak **Jone** bihar 12 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Nahia, Ainhoa eta Nagoreren partez.



▶ Zorionak **amama!** Orain bezain alai jarrai dezazula! Muxu handi bat etxekoan partez.



▶ Krabelintxuak 5 orri dauzka... Hamaika berriz zureak! Zorion kantak aditzen dira. Bihotzez tori gureak.



▶ Zorionak **Xuban** 4 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Danel** martxoaren 21ean 9 urte beteko dituelako. Familiakoen eta bereziki, Nahia arrebaren partez.



▶ Zorionak **Andoni** bihar 11 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



▶ Zorionak **Jon** ostegunean 2 urte egin zenituelako. Familiakoan partez patxo handi bat.



▶ Zorionak **Anton** zure 1. urtebetetzean. Muxu handi bat lkastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Julen** 11 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Unax** 3 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez, muxu bat.



▶ Zorionak **Nekane** hilaren 14an 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat Maialen eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Iker eta aitatxo** zuen urtebetetze egunean. Etxekoan eta batez ere, Jonen partez.



▶ Zorionak **Markel eta Mikel** bi urte potolo egin dituzulako. Muxu handi bat lkastolako laguntxoan partez.



▶ Aupa **Mireia eta Itxaso!** 16 urte! Ondo-ondo pasat! Supermenen partez.




▶ Zorionak **Leire** martxoaren 13an 9 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, Josuren partez.



▶ Zorionak **Ane** hilaren 12an 11 urte egin zenituelako. Familiakoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Itxaso**, gaur, hilak 16, 16 urte egin dituzulako. Etxekoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Maren** martxoaren 19an 4 urte egingo dituzulako. Bea eta Joaquinen partez.

▶ Zorionak beroenak **Lorea eta Itigorri**, Unairen aitatxo eta amatxo egin ondoren. Muxu handi bat Markel eta gainontzekoan partez.

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



18 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

16	GUARDIA 24 ORDUZ Fernandez
17	Zabaleta (* Goizez Etxeberria-Erosario)
18	Zabaleta
19	Etxeberria (Erosario)
20	Ibañez
21	Bidasolo
22	Etxeberria (Santa Ana)
23	Fernandez

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emailak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
UDALA		Gazte Informazioa	943 74 14 61
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	KZ gunea	943 74 88 28
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58		
Hirigintza	943 74 43 84	ADINEKOEN ETXEA	
Epaitegia	943 74 16 30	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Haziena	943 74 44 14	Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08		
Udaletxea	943 74 10 50	IKASTETXEA	
Udalzaingoa	943 74 13 94	Haur Eskola	943 74 21 41
Debemen	943 74 40 67	HHI (EPA)	943 74 08 80
		Herri Eskola	943 74 08 79
GARRIAK		I.M.H.	943 74 41 32
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
PESA (Eibar)	902 10 12 10	•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Taxi geltokia	943 74 08 98	Ikastola	943 74 44 41
Bizkaibus	902 222 265	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45

Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00

Igandek eta jaiegunak:
9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandek eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

Asteburu eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[16 BARIXAKUA]

20:00 MIKEL MARKEZ ETA PAKO

ARISTI

"Tabuak saltsa berdean"


Korrika Kulturala

Musika Eskolako auditorioan

Dohainik

SINOPSISIAK

«En busca de la felicidad»



[17 ZAPATUA]

10:00 HILEKOARI BURUZKO

TAILERRA

Gaztetxean

Dohainik

Izena ematea:

biluzikzerbitzua@yahoo.es edo
678 453 063 telefonoan

10:30 LARRIALDIETARAKO

IKASTAROA

Balmasedako Babes zibilekoen
eskutik.

Aubixan

12:15 TXURI URDINERA IRTEERA

Tren geltokitik

LH 4ko, 5ko eta 6ko ikasleentzat

22:00 KONTZERTUAK

GAZTETXEAN

Taldeak: "The Kraven" eta
"Insomnio"

Gaztetxean

Antolatzailea: Gazte Asanblada

[23 BARIXAKUA]

14:45 KORRIKA TXIKIA

King-Kong-etik Plaza Handira

Antolatzailea: AEK euskaltegia

22:15 EMETIK BERTSO KABARETA

Bertsolariak: Onintza Enbeita, Iratxe
Ibarra eta Oihane Perea

Kultur Etxeko sotoan

Dohainik

Antolatzailea: Kutxaren Gizarte-

Ekintza

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«En Busca de la felicidad»

16, barixakua: 22:15

17, zapatua: 19:30-22:15

18, domekia: 19:30-22:15

21, astelehena: 21:30

«Peligro, menores sueltos»

18, domekia: 16:30

«Txorixak galduta egozian»

(Korrika Kulturala)

22, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«En Busca de la felicidad»

16, barixakua: 19:30-22:15

17, zapatua: 17:00-19:30-22:15

18, domekia: 17:00-19:30-22:15

19, astelehena: 19:30-22:15

20, martitena: 19:30-22:15

21, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

dad»

«...txorixak galduta egozian»

Zuzendaria: Gabriele Muccino.

Antzezleak: Will Smith, Thandie Newton.

Chris Gardner (Will Smith) bizirauteko borrokatzen duen familiaburua da. Familia aurrera ateratzeko ahalegin itzelak egitea, ordea, ez da nahikoa izango eta bere 5 urteko semetxoarena amak, bere emazteak, etxetik alde egingo du egoera ekonomiko penagarriak eragindako tentsio eta presioari ezin duelako gehiago jasan. Gogoz saiatu arren, gauzak gero eta okerragoa terako zaizkio Chrisi. Lanik topatu ezinik dabil eta etxetik botako dute. Ia dena galdu du, semeari zor dion neurrigabeko maitasuna izan ezik.



Zuzendaria: Jose Maria Gonzalez.

Dokumentala (Euskaraz)

"...txorixak galduta egozian" euskarazko lana ikusi ahal izango da martxoaren 22an. Jose Maria Gonzalez oñatiarrak zuzendutako dokumentala da eta AEK-k bultzatutako Korrika kulturalaren barruan eskainiko da Elgoibarren. Euskal Herrian desagertzeaz dagoen baseri giroa isladatzen da pelikulan, Mikel laboaren musikarekin. Laga diezaiogun berba egileari: "zenbat eta azkarrago joan, orduan eta hobe dela dirudi; bada nik bidaiaren balioa nabarmendu dut. Poliki bizitzeko bertute galdua".

Atzera hegira



1946. urte inguruko erretratu zahar hau **Alicia Marcosek** laga digu. San Roke bailarako parajeren batean aterata dago argazkia. Hemen ikusten dugun lagun koadrila honek pasiera eta ibilaldiak egiteko ohitura handia zeukan. Hemen agertzen diren guztiak bikoteak dira euren artean, zortzi pareja azaltzen dira guztira. Mutilak denak koadrila berekoak ziren, "Karlston" koadrilakoak hain zuzen ere. Holandako gizon indartsua zen "Karlston". Bittor Ansolari (Txanbolin) deitzen zioten horrela eta koadrilak izen hori hartu zuen. Neskak ez ziren denak koadrila berekoak, baina oso lagun onak ziren. Bitxikeri moduan aiptau behar dugu, bikote guzti hauek elkarrekin ezkondu zirela, ez zen inor haserretu. Gogora ditzagun zein diren hauek:

Goian, ezkerretik eskumara: **Gloria Arzallus, Juli Gorrotxategi, Juanita San Martin, Pilar Etxabe (t), Kristina Lizundia, Miren Vallejo, Alicia Marcos, Tere Lodoso.**

Beheko ilaran: **Miguel Sanchez (t), Marcelo Ajubita (t), Jose Gurrutxaga, Jesus Bilbao (t), Benito Saez (t), Pako Juaristi (t), Jose Zubiaurre eta Roke Arregi.**



Judith EDERGINTZA

Osasun,
edertasun
eta ongizatean
espezializatua



Errosario kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667 742 118

ingeniaritza imh

IMH Ingeniaritza Eskola

Goi-mailako heziketa zikloa
egin ondoren nahi baduzu...

- ingeniaria izan eta ardura postuetan aritu
- lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean
- ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boleniako ibunean indarrean dagoen titulu ofiziala lortu
- atzerian praktikak egin

ate irekiak

martxoaren 24 ean

goizeko 11:30 etan

... zatoz IMH Ingeniaritza eskola
ezagutzera

zure txanda!

Informazioa:


IMH INGENIARITZA ESKOLA
Azkue Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel: 943 744 132
E-mail: ingeniaritza@imh.es
www.imh.es



ikasten
ala lanean?
Ikasi eta gainera lan egiten dut.



cesí Frantziako CESI
Ingeniari Titulu ofiziala



n
i
r
l
s




0-12 neskak
0-8 mutlak

San Bartolome, 15

Tel.: 943 74 04 07

IKKS

ELLE

Timberland 

DIESEL

DKNY